



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 16a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-24/PRO-00018. Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-25/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- 11-25/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00070. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita behin betikoz ekin diezaion Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-25/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari formalki eska diezaion 55 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba egin dezan Allozko urtegian, Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat garatzeko. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-25/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita talentu teknologikoa erakartzeko, atxikitzeko eta sortzeko plan bat abian jar dezan. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (10. or.).

- 11-25/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jendaurrean aitortzen baitu energia nuklearrak funtsezko zeregina daukala hornidura elektriko seguru eta egonkorra bermatzeko. Nafarroako Alderdi Popularrak talde parlamentarioak aurkeztu du (11. or.).
- 11-25/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premia-tzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (12. or.).
- 11-25/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Euskaraldia ekimenarekin. Mozioa erretiratzea (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00173. Galdera, Betizuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun-arri-kuet buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).
- 11-25/PES-00174. Galdera, A-1 autobian bidesariak ezartzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (15. or.).
- 11-25/PES-00175. Galdera, Elkanoko Javier Egoitzako hazteri-agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko neurri buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (16. or.).
- 11-25/PES-00176. Galdera, Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berriari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00177. Galdera, "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua" sortzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (17. or.).
- 11-25/PES-00178. Galdera, kirol-plangintzan osasun mentalerako arretaren ikuspegia sartzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00179. Galdera, Nafarroako Azoka Eremua (REFENA) izandakoari etorkizunean ematen ahal zaizkion erabilerei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (18. or.).
- 11-25/PES-00180. Galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (19. or.).
- 11-25/PES-00181. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan paziente euskaldunei ematen zaien logopedia-arretari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (20. or.).
- 11-25/PES-00182. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoko parte-hartze prozesuaren faseei buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (21. or.).
- 11-25/PES-00183. Galdera, Betizu arrazako behiekiko istripu-kasuetako erantzukizunari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00184. Galdera, Bidean-ek langileak subrogatzeari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (22. or.).
- 11-25/PES-00185. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren alokairu-kon-
tratuari buruzkoa. Mario Fabo Calero jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00186. Galdera, Nafarroako Ubidera konektatutako Leringo Edateko Uren Araztegia Toki Inbertsioetarako Planeko obretan ez sartzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- 11-25/PES-00187. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/987 Ebazpenari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (25. or.).
- 11-25/PES-00188. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/55 Ebazpenari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (25. or.).
- 11-25/PES-00189. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren balizko desegiteari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (26. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- PER202300062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, fun-
tzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Izendapen-proposamena (27. or.).
- 11-25/ACOP-00011. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, LGTBI+fobiaren aurkako Nazioarte-
ko Eguna dela-eta (28. or.).
- 11-25/ACOP-00010. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Europaren Eguna dela-eta (28. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00018. Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi du.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 173. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen duena

HITZAURREA

Foru lege honek xede du Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuen jabetza egun berean hartzeari buruzko araudia aldatzea, hutsaldu egin baitira prozesu desberdinetan jabetza-hartzea egun berean izan zedin komenigarri egiten zuten eraginkortasun administratiboko arrazoiak, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldi-

baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legeak ahalbidetzen zituen egonkortze-prozesu nahiz prozesu arruntetan.

Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak helburu zeukan egiturazko aldibaterakotasunaren tasa ehuneko 8 baino beherago kokatzea administrazio publikoen multzoan.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abenduaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua foru-araubidearen oinarriko ardatzetakotzat jasotzen du Nafarroak toki-araubidearen alorrean duen eskumen historikoa. Hala, aipatu manuaren arabera, Nafarroari dagozkio “gaur egun dituen ahalmen eta eskumena, 1841eko abuztuaren 16ko Lege Itunduan, 1925eko azaroaren 4ko Errege Lege-dekretu Itunduan eta bere xedapen osagarrietan erabakitakotaren babesean”, bai eta “aurrekoekin bateragarriak izan eta Estatuko oinarriko legeriaren arabera autonomia-erkidegoei edo probintziei dagozkiekeenak” ere.

Gaur egun, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak bere 234. artikuluan ezartzen du ezen, arau orokor gisa, Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza duten funtzionarioentzat ez beste inorentzat erreserbatuta egonen dela idazkaritza nahiz kontu-hartzaitzaren alorretako eginkizun publiko beharrezkoen egikaritzea.

Orobat, aipatu foru legearen 236. artikulua dioenez, Nafarroako Gobernuan toki-administrazioaren arloko eskumena duen departamentuari dagokio harako langileak hautatu eta izendatzea, zeinek foru-gaikuntzadun langileei erreserbatutako eginkizun publiko beharrezkoak bete behar baiti-

tuzte, idazkaritza eta/edo kontu-hartzaitzaren alorretakoak.

Eta, hain zuzen ere, Nafarroako toki-entitateetako idazkaritza eta kontu-hartzaitzako postuetan ari da gertatzen behin-behinekotasun egoera larria, urteak joan urteak etorri bere horretan dirauena, postu horien funtzionariozko postu-betetzea Nafarroako toki-entitateen maparen balizko berregituraketara baldintzatuta egotearen ondorioz.

Horri eranstean zaion egitatea da foru-gaikuntzadun funtzionario urriek ezin izan dutela parte hartu, orain dela hamabi urte baino atzeragotik, Nafarroako toki-entitateetako beste lanpostu foru-gaikuntzadun batzuetara mugitu edo lekualdatzea ahalbidetuko zieten zenbait merezimendu-lehiaketatan, lanpostu hutsak betetzeaz denaz bezainbattean dagoen araugintza-blokeoa dela-eta.

2024ko irailaren 10eko auto baten bitartez, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko arazoa aurkeztea maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legearen, funtzio publikoan merezimendu-lehiaketa bitartez sartzeko salbuespenezko prozesua arautzen duenaren, 6. artikuluen aurka. Prozesu hori, hain zuzen ere, Sala horrexek berak etenda dauka 2023ko abenduaz geroztik; eta, horrenbestez, prozesu desberdinetako lanpostuen jabetza-hartzeak batera egitearen aldeko eraginkortasun administratiboko arrazoiak funtsik gabe geratu dira.

Maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legeko 8.2 artikulua ezartzen du ezen, eraginkortasun administratiboko arrazoiengatik, eta bat etorri Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 252. artikuluan ezarritakoarekin, izendatuak izan direneko lanpostuaz egun berean jabetuko direla 1. artikuluan aurreikusitako merezimendu-lehiaketa berezietan lanpostua adjudikatu zaienak eta 3.etik 7.era bitarteko artikuluetan aurreikusitako hautaprosesuen ondorioz foru-gaikuntza lortu dutenak. Artikulu hori kontraesanean sartu da aipatu postuen jabetza-hartzea bateratasunez egiteko zeuden eraginkortasun administratiboko arrazoiekin eta arau horrek ezarritako aldibaterakotasun-murrizketako helburuekin; bai eta, azken batean, enplegu publikorako sarbideari buruzko konstituzio-arauekin berekin eta funtzionario orok mugikortasunerako duen oinarriko eskubidearekin ere.

Hori guztia dela-eta, maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legea aldatzen da, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Foru lege hau onetsia izateko beharrezkoa izan da gehiengo osoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 172 eta 173. artikuluek xedatuaren arabera.

Artikulu bakarra. 16/2022 Foru Legea aldatzea, maiatzaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa.

Bat. 8. artikuluen 2. apartatua kentzen da.

Bi. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da.

“Xedapen gehigarri bakarra. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda.

Harik eta Konstituzio Auzitegiak ebatzi arte Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko maiatzaren 30eko 16/2022 Foru Legeko zenbait manuri buruz Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak aurkezturiko konstituzio-kontrakotasun arazoa, aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda bat eginen da, honako baldintza hauek guztiak betezen dituzten izangaiak osaturikoa:

1. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 679/2022 Ebazpenaren bitartez deituriko prozeduretako epaimahaiek kasuko izangaiaren aldeko izendapen- eta gaitze-proposamena egin izana.

2. Foru-gaikuntzarik lortu ez izana, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren abenduaren 1eko 680/2022 Ebazpenaren bitartez deitutako prozeduren ondoriozkorik. Ebazpen horren bidez onesten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emandako gaikuntza lortzeko deialdia, eta Nafarroako toki-entitateetako idazkaritzako eta kontu-hartzaitzako postuetarako sarbidea ematea, oposizio-lehiaketaren sistemazko txanda askeko hautaprosesuen bitartez, bai eta aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketa bidez egonkortzeko hautaprosesua ere.

Nafarroako toki-entitateetako idazkaritzako edo kontu-hartzaitzako postuetarako aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenda hori ordezkoa izanen da oposizio-lehiaketaren sistemazko txanda askeko deialdiaren ondoriozkoaren aldean, bai eta aldi baterako enplegua oposizio-lehiaketaz egonkortzeko prozesuaren ondoriozkoaren aldean ere, zeinak lehenago aipatu baitira.

Zerrendako izangaien hurrenkera izanen da izendapen-proposamenetan haiek betetzen duten posizioaren arabera.

Izangaiei deitzea eta, kasua bada, haiek kontratatzea, eginen dira abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoari jarraikiz, zeinak onesten baitu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina, eta halaber jarraikiz Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren ekainaren 5eko 187/2013 Foru Agindua-

ri, zeinaren bidez arauak onesten baitira, hala eskatzen duten Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrendak kudeatzekoak. Aplikatzekoa suertatzen den gainerako araudiari ere helduko zaio”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

11-25/PRO-00011. Foru-lege proposamena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzekoa

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 8an egindako bilkuran, ezetsi egin du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko foru-lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hori argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

D saila:
HITZARMENAK

11-25/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko maiatzaren 8an egindako bilkuran, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa onetsi zuen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00070. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita behin betikoz ekin diezaion Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua premiatzen baita behin betikoz ekin diezaion Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzeari.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Eskatzen dugu mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean egin dadila.

Zioen azalpena

“Bizikidetzazko eta Berdintasunezko Legegintzaldi Berritzaile eta Aurrerakoirako Programa-

akordioa (2019-2023)” agiriaren 89. puntuak honako hau zioen:

“Garapenerako Lankidetzako Nafarroako Agentzia bat sortzeko aukera aztertu, Lankidetzarako III Plan Zuzentzailearen esparruan eta GKEen kontsentsuarekin”.

Legegintzaldi horretan azterlan bat egin bazen ere, azkenean, asmo hori ez zen gauzatu Nafarroako Lankidetzarako III. Plan Zuzendarian (2021-2024), zeina amaituta eta ebaluazio-fasean baitago une honetan.

Heldu diren hilabeteak funtsezkoak izanen direnez III. plan horren ebaluazioa egiteko eta Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzendaria taxutzeko, proposamen honek berriz hartu du garrantzia.

Nafarroa bezalako erkidego batentzat, bere irudia atzerrian definitzeko goiburuetako bat izan behar dute garapenerako lankidetzako politikek. Izan ere, hainbat ahotsek aldarrikatzen dute lankidetz-politikek gizarte-zerbitzuaren egungo ikusmoldea gainditi behar dutela, eta edozein erakunderen Kanpo Politiken funtsezko zati izan behar dutela.

Agentzia bat sortzeak lankidetz-politika publikoen teknifikazioa eta kudeaketa hobetuko lituzke, Nafarroa Lankidetzaren mapa globalean hobeto kokatzea bermatuta hartara. Andaluziak, Kantabriak (kasu honetan, fundazio publiko baten bidez), Extremadurak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Asturiasek agentzia propioak dituzte, eta agentzia horiek, Espainiako Agentziarekin batera, eredu eta inspirazio gisa erabil daitezke.

Gaur egungoa bezalako testuinguru geopolitikoan, non handiak baitira desberdineriak, Garapene-

rako Lankidetzarako Politika Publikoek lehen mailako lehentasun politikoa izan behar dute gizarte aurreratuentzat, eta, beraz, ezinbestekoa da politika horiek hobetzeko eta kudeatzeko tresnak sortzea.

Horregatik guztiagatik, gaur egun ezinbestekoa da Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia sortzea Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentua premiatzen du behin betikoz ekin diezaion Nafarroako Lankidetzarako IV. Plan Zuzentzailean Nafarroako Garapenerako Lankidetzaren Agentzia sortzeari.

Iruñean, 2025eko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/MOC-00071. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari formalki eska diezaion 55 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba egin dezan Allozko urtegiaren, Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat garatzeko

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebroko Konfederazio Hidrografikoari formalki eska diezaion 55 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba egin dezan Allozko urtegiaren, Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat garatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean

eztabaida dadin: Allozko urtegiaren jabari publikoko ur-erreserba egin bedi Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat sortzeko.

Zioen azalpena

Mendebaldeko Estellerria da Nafarroan ekoizpen-ahalmen handiena eta modernizazio hidriko txikiena duen nekazaritza-eremuetako bat. Lurzati-egitura finkatua du, bai eta aniztasun agroklimatikoa eta lanbide-sare aktiboa ere; beraz, ureztaketarako baliabide hidrikoak izatearen mende dago, neurri handi batean, haren garapen sozial eta ekonomikoa.

Allozko urtegiak, zeinak 155 km²-ko arro propioa eta 55 hm³ arteko erregulazio-ahalmena baititu, 7.700 hektarea baino gehiago hornitu izan ditu Gesalatz eta Argako ibarretan. Hala ere, erkidego horiek Nafarroako Ubidearen sisteman sartzeak emakida horiek bertan behera uztea ekarri du praktikan, eta ura ez da nekazaritzarako erabiltzen. Gaur egun, nagusiki, baliabidea aisialdirako erabiltzen da, erabilera hidroelektrikoa ematen zaio eta beste autonomia-erkidego batzuetako ureztatze-eremuetara ere bideratzen da; Aragoira, adibidez, Ebroko hurrengo urtegi handia (Mequinenza) ibilguan behera dagoelako.

UPNk, garaiz eta behar bezala, alegazio bat egin dio Ureztaketaren Foru Planaren aldaketari, eta eskatu du aprobetxatu gabeko bolumen hori berreskuratze eta Mendebaldeko Estellerrian urezta daitekeen eremu berri bat esleitzeko, urte-

giaren egungo erabilerekin bateragarria dela ziurtatuz. Aurkeztutako proposamen teknikoak proiektuaren bideragarritasun hidraulikoa, agronomikoa eta ingurumenekoa frogatzen du. Horri esker, 7.800 eta 8.600 hektarea artean ureztatzen ahalko lirateke, grabitate bidezko ureztatzearen eta erregulazio-putzuen bidez, Natura 2000 Sarearen arabera babestutako guneei eragin gabe.

Uren Legearen Testu Bateginaren 59. artikuluen arabera, Nafarroako Gobernuak 55 hm³ arteko jabari publikoko erreserba bat eska dezake eta eskatu behar du Allozko urtegian. Figura juridiko horri esker, nekazaritza-erabilera estrategikorako behar den bolumena etorkizunean eskuragarri egonen dela bermatzen da, eta Nafarroa ureztatu gabe dagoen bitartean hirugarrenek erabilera hori eskuratzea saihesten da.

Jabari publikoko erreserba eskatzea da Allozko urtegiaren etorkizuneko ur-hornidura Mendebaldeko Estellerriaren mesedetan blindatzeko lehen urrats legal eta instituzionala, horrela, hirugarrenentzako esleipenetatik babestuko litzateke, eta Nafarroako nekazaritza-plangintzan sartuko dela ziurtatuko.

Jabari publikoko erreserba eskatzea ez dago zuzkidura historikoen defentsarekin kontraesanean; aldiz, erreserba da indarrean dagoen legezko tresna eraginkorra eskubide zilegi hori eguneratu eta

babesteko, plangintza ordenatu baten barruan. Nafarroako Gobernuak, landa-garapenaren arloan dituen foru-eskumenak baliatuz, baliabide estrategiko hori irmotasunez aldezteko ardura politiko, juridiko eta lurraldekkoa du. Nafarroako urak Nafarroa ureztatzeko balioko duela bermatzeko uena da.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Ebroko Konfederazio Hidrografikoari formalki eska diezaion 55 hektometro kubikorainoko jabari publikoko ur-erreserba egin dezan Allozko urtegian, Mendebaldeko Estellerrian eremu ureztagarri berri bat sortzeko.

2. Era berean, Nafarroako Gobernua premiatzen da erreserba hori berariaz sar dezan Ureztaketan Foru Planean lehentasunezko eta Foru Komunitateko landa-garapenaren interes publikoari lotutako jarduketara estrategiko gisa.

3. Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du mozio hau eta haren edukia Trantsizio Ekologikorako Ministerioari, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Espainiako Gobernuari jakinaraztea, Nafarroako ur-interes historikoak eta lurralde-ekitatearen printzipioa defendatzeko.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/MOC-00072. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita talentu teknologikoa erakartzeko, atxikitzeko eta sortzeko plan bat abian jar dezan

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita talentu teknologikoa erakartzeko, atxikitzeko eta sortzeko plan bat abian jar dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebil tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean eztabaidatzeko:

Nafarroako Gobernua premia-tzen da talentu teknologikoa erakartzeko, atxikitzeko eta sortzeko plan bat abiaraz dezan.

Zioen azalpena

Enpresek informatikaren, teknologiaren nahiz marketin digitalaren arloko gero eta profil gehiago behar dituzte enpresa txiki eta ertainetan, eta, jakina, *startup*-etan.

Gaur egun, profil teknologiko ugari eskatzen dira: adibidez, ingeniariak eta datuen analisiarekin eta ustiapenarekin lotutakoak, digital project manager-ak, software-garatzailleak eta IKT profesional teknikoak, Big Data, IOT, Cloud Computing, marketing digital edo publizitate programatikoari buruzko ezagutzak dituztenak.

Europako Batzordeak helburutzat hartu du 2030ean 20 milioi langile izatea informazioaren eta

komunikazioaren teknologietan (IKT). Gaur egun, Europan, 9,8 milioi profil teknologiko inguru daude –horietatik 915.000, Espainiak eskaintzen ditu—. Horrek esan nahi du milioi bat eta erdi aditu prestatu edo erakarri beharko dituela 6 urtean. Nafarroak, berriz, teknologiaren arloko 30.000 profesional inguru beharko ditu denbora-tarte horretan.

Nafarroak arazo larria du teknologia-arloko kualifikazio handiko langileak erakartzeko, eta, une honetan, geldialdi- eta narriadura-sintomak ditu zenbait adierazletan. Hori dela eta, beharrezkoa da ahaleginak areagotzea eta konformismoan ez geratzea.

Teknologiaren arloko profesionalek, lantokia aukeratzeari begira, honako hauek balioesten dituzte nagusiki: bizi-kostua eta fiskalitatea erakargarria izatea, enpresa-sareak enplegu-aukerak eta garapen profesionaleko potentziala eskaintzea, lur eta aire bidezko konektibitatea ona izatea eta kalitatezko zerbitzu publikoak eskaintzea.

Gainera, Nafarroan teknologia-langileen batez besteko soldata (54.151 €) txikiagoa da estatuko batez bestekoa baino (55.859 €), eta horrek talentu digitala erakartzeko posizio txarra duten eskualdeen taldean kokatzen du gure erkidegoa.

Enpresa teknologikoak kezkatuta daude honegatik:

– Ez dagoelako enpresen beharretarako behar den talenturik. Profil teknologikoen urteko eskaintza nabarmen txikiagoa delako enpresetan bete beharreko lanpostuen kopurua baino.

– Merkatu globalean lehia handitzen ari delako, eta, horren ondorioz, profil horietako langileen lanmugikortasuna handiagoa delako erakarpen-gaitasun eta soldata handiagoak dituzten eskualde edo herrialdeetarantz, Nafarroan baino zerga-baldintza hobek dituztenetarantz. Talentua Nafarroatik kanpoko enpresetara joateak, profesionalak galtzeaz gain, Nafarroako enpresek lehiatzeko gaitasun txikiagoa izatea dakar.

– Oraintxe bertan, Nafarroa ez da digitalizazioan erreferente gisa ikusten, ezta adimen artifiziala bezalako teknologietan ere. Teknologiaren arloko negozio-zentro garrantzitsuak beste autonomia-erkidego batzuetan ezartzen ari dira.

– Nafarroak ez du erreferentzia garrantzitsurik IKTen sektorean edo sektore digitalean, eta, enpresa-erakargarritasun hori gabe, profesionalak ez dute ikusten Nafarroa beren karrera profesionala garatzeko eskualde gisa.

– Enpresek adierazi dute oraindik asko dagoela egiteko hainbat eragileren parte-hartzea sentsibilizatzeari, bateratzeari eta sustatzeari edo beste eskualde eta hiri batzuk jada abian jartzen ari diren neurriak abian jartzeari dagokienez.

Erabaki-proposamenak:

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du:

1. Talentu teknologikoa erakartzeko, atxikitze-ko eta sortzeko plan bat abian jar dezan 6 hilabe-

teko epean, enpresak, unibertsitateak eta zentro teknologikoak inplikatu dituen, dagozkien adierazle bidez neurtzen eta ebaluatzen ahal diren helburuak izanen dituen, eta argi eta garbi zehaztutako aurrekontu bat ere izanen duena.

2. Plan hori ezartzearekin batera, talentua erakartzen lagunduko duten beste neurri batzuk har ditzan: hala nola talenturako eta inbertsio teknologikoetarako erakargarria den zerga-politika bat garatzea, enplegu teknologikoari laguntzeko politikak ezartzea, konektibitatea hobetzea (lurra eta airea), eta administrazio-izapideak murriztea eta sinplifikatzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-25/MOC-00073. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jendaurrean aitortzen baitu energia nuklearrak funtsezko zeregina daukala hornidura elektriko seguru eta egonkorra bermatzeko

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak jendaurrean aitortzen baitu energia nuklearrak funtsezko zeregina daukala hornidura elektriko seguru eta egonkorra bermatzeko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Itzalaldi batek milioika herritarri eragin zien joan den astelehenean: funtsezko zerbitzuak eten ziren, ekoizpen-sektoreak geldiarazi zituen eta agerian utzi zuen gure sistema elektrikoaren zaurgarritasuna. Gorabehera horrek berriro ireki du gure energia-ereduaren sendotasunari, egonkortasunari eta erresilientziari buruzko eztabaida, ekonomiaren elektrifikazioa gero handiago den eta energia-matrizea deskarbonizatzen ari den testuinguru honetan.

Esparru horretan, energia nuklearra iturri sendoa, segurua eta emisio gutxikoa da, energia berriztagarriak eraginkortasunez osatzeko gai. Energia berriztagarriak funtsezkoak dira etorkizun energetikoari begira, baina aurreikusi ezin diren faktore klimatikoen mende daude, eta oraindik ez dute eskala handiko biltegitratze-soluziorik erabat hedatuta.

Espainiak azpiegitura nuklear finkatua du, segurtasun-estandar altuenen arabera taxutua, eta kualifikazio handiko profesionalak ditu. Zentral nuklearrek, gutxi gorabehera, elektrizitate nazionalaren % 20 ematen dute, eta CO₂ isuririk gabeko elektrizitatearen % 30 baino gehiago. Hori funtsezko pieza da etenik gabeko hornidura bermatzeko, batez ere

eskari handiko edo beste iturri batzuek huts egiten duten uneetan.

Erabaki-proposamena:

1. Iberiar Penintsulari berriki eragin zion itzalaldia kontuan hartuta, argi dago iraunkortasuna, eraginkortasuna eta segurtasuna uztartzen dituen logika baten arabera diseinatu behar dela energia-sistema. Beraz, balizko kontingentzien aurrean sistemaren erresilientzia bermatuko duen «mix energetiko» orekatu bat bultzatzea proposatzen da.

2. Publikoki aitortzea energia nuklearrak funtsezko zeregina duela hornidura elektriko seguru eta egonkorra bermatzeko.

3. Gobernu zentrala premiatzea zentral nuklearrak ixteko egutegia berrikus dezan, berriki izandako gertaerak eta herriaren energia-beharrak ikusita.

4. Trantsizio Ekologikorako Ministerioa premiatzea energia nuklearra sar dezan epe ertain eta luzerako energia-plangintzaren zati aktibogisa, energia berriztagarriekin batera.

5. Ikerketan, berrikuntzan eta egungo parke nuklearraren mantentzean inbertitzea babestea, bai eta sektoreko profesional berrien prestakuntzan ere.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Eleduna: Javier García Jiménez

11-25/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2025eko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita hezkuntza- eta demografia-azterlan zorrotz bat egin dezan sistemako etapa guzti-guztietan, itundu

behar ez diren unitateak arian-arian kentzeko kronograma bat ezartzea ahalbidetuko duena. Mozioa 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Euskaraldia ekimenarekin

MOZIOA ERRETIRATZEA

2025eko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Jasotzat ematea EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa erretiratu izana. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat

egiten du Euskaraldia ekimenarekin. Mozioa 2025eko apirilaren 30eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00173. Galdera, Betizuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun-arriskuei buruzkoa*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Betizuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun-arriskuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gero eta handiagoa da Baztanen eta Urdazubin kontrolik eta identifikaziorik gabeko betizu arrazako behi basatuen presentziaren inguruan bizilagunek eta abeltzainek duten kezka. Hori dela-eta, abere-osasunari eta segurtasun publikoari begira behi horiek dakarten arriskuak ikusita, honako galdera hauek egiten ditugu:

1. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du betizu basatuen presentziak Nafarroako ganaduarentzat ekar ditzakeen osasun-arriskuei buruz, eta zer jarraipen-, kontrol- eta prebentzio-neurri ezartzea aurreikusten du Departamentuak abelburuak kutsatzea edo afekzioak izatea saihesteko?

2. Nafarroako Gobernuak aurreikusten al du berriazko protokolorik ezartzea antzeko abandonu-, utzikeria- edo kontrol-faltako egoerak Nafarroako abeltzaintza-ustategietan ugaltzea saihesteko, batez ere mugaldeko eremuetan edo iristeko zailak diren eremuetan?

Iruñean, 2025eko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00174. Galdera, A-1 autobian bidesariak ezartzeari buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, A-1 autobian bidesariak ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarrek Espainiako zerga-kargarik handiena jasaten dutela ikusita, erregaiak zergapetzen dituen Hidrokarburoen gaineko Zerga Berezia eta Zirkulazio-zerga bera barne, biak ere errepideen kontserbazioa finantzatzera bideratuak, eta kontuan hartuta A-1 autobian bidesariak ezartzeak beste karga ekonomiko gehigarri bat ekarriko

diela ohiko erabiltzaileei, eskatzen da Lurralde Kohesiorako kontseilariak erantzun zehatza eman diezaiela, orokortasunik gabe, autobian bidesariak ezartzeari buruzko gai hauei:

1. Zein da A-1 autobian bidesariak ezartzearen ondoriozko urteko diru-sarreraren aurreikuspena, eurotan? Adierazi kalkulu horren oinarri den dokumentu ekonomiko zehatza.

2. Zein izango da A-1 errepidetik egunean 50 kilometroko ohiko ibilbidea egiten duen nafar batek ordaindu beharko duen batez besteko kostua urtean, eurotan? Zehaztu zer metodo erabili den kalkulua egiteko.

3. Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen ofizial du, ibilgailuen portzentajea eta bolumena adierazita, bidesaria ezartzearen ondorio zuzen gisa A-1 autobiko trafikoaren aldaketari buruz? Aipatu zer txosten teknikotan oinarritzen den aurreikuspen hori.

Halaber, kontseilariari eskatzen diot berariaz azaldu dezan zergatik uste duen sozialki bidezkoa eta ekonomikoki arrazoizkoa dela dagoeneko beste zerga batzuen bidez finantzatzeko bideetan bidesari gehigarri bat ezartzea nafarrei, Foru Komunitatean dagoen presio fiskal errekorren bidez bildutako baliabideak horretarako erabili beharrean.

Iruñean, 2025eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-25/PES-00175. Galdera, Elkanoko Javier Egoitzako hazteri-agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko neurriei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Elkanoko Javier Egoitzako hazteri-agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan.

Nafarroako Arartekoak ebazpen bat eman du, zeinen bidez Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari iradoki baitio Javier Egoitzan –Elkanon dago eta adimen-desgaitasuna duten emakumeei zuzendua da– osasun-egoeraren jarraipen aktiboa egiten jarrai dezala eta zentroan hautemandako hazteri-agerraldi bat (sarna) "ahalik eta lasterren" desagerrarazteko behar diren neurriak har ditzala.

Ebazpena egoiliar baten senide batek otsailaren 24an aurkeztutako kexa baten ondoren eman zen. Salaketaren arabera, zentroko egoiliarrak nahiz langileak ukitu zituen agerraldia 2024ko urrian hasi omen zen, eta, senide horren ustez, agerraldia ez zen behar bezala bideratu. Salatzailleak kontatu zuen bere senideak lau tratamendu desberdin jaso zituela, emaitza argirik gabe, eta kritikatu zuen ez zela erantzun azkar eta koordinaturik eman kutsatzeak geldiarazteko; ondorioz, egoiliarrak lesio iraunkorrak eta larruzaleko markak dauzka.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

– Zer neurri ezarri dituzte Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak Elkanoko Javier Egoitzako hazteri-agerraldia (sarna) konpontzen saiatzeko?

– Elkanoko Javier Egoitzak ezarri al ditu Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak helarazi dizkieten osasun-neurri guztiak?

– Javier Egoitzak neurriak ezarri baditu eta agerraldiak aktibo jarraitzen badu, zer beste ekimen proposatzen dira kutsadura konpontzeko?

– Eta Elkanoko Javier Egoitzak neurri guztiak ezarri ez baditu, zer ekimen hartu dira agerraldiak ukitutako pertsonen osasuna bermatzeko, eta zer neurri hertsatzaile hartu dira Javier Egoitzarekin, arretarik eza zuzen dezan?

Iruñean, 2025eko apirilaren 31n

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/PES-00176. Galdera, Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berriari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Taxutu al da edo taxutzen ari al da Nafarroako Parlamentuak 11-23/MOC-00054 mozioan onetsi duen Donejakue Bideari buruzko Plan Integral Berria? Noizko aurreikusten da planaren aurkezpena?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00177. Galdera, "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua" sortzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua" sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentu honek onetsitako 11-23/MOC-00062 mozioan jasotzen den "Kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua" sortu al da edo sortzeko prozesuan al dago?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00178. Galdera, kirol-plangintzan osasun mentalerako arretaren ikuspegia sartzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, kirol-plangintzan osasun mentalerako arretaren ikuspegia sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak egindako kirol-plangintzan sartu al da osasun mentalaren arretaren ikuspegia, kirol-arloko profesionali zuzendutako ekintzetan, Parlamentu honek onetsitako 11-24/MOC-00050 mozioan jasotzen den bezala?

Zer ekintza eta neurri hartu dira mozio hori betetzeko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00179. Galdera, Nafarroako Azoka Eremua (REFENA) izandakoari etorkizunean ematen ahal zaizkion erabilerei buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Nafarroako Azoka Eremua (REFENA) izandakoari etorkizunean ematen ahal zaizkion erabilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Azterlanik egin al da Nafarroako Azoka Eremua (REFENA) izandakoari etorkizunean ematen ahal zaizkion erabilerei buruz?

Gobernuak ba al du asmorik instalazio horri legegintzaldi honetan erabileraren bat emateko?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00180. Galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, oinarrizko gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileek jaso beharreko ordainsarrietan egon daitezkeen gabe-

ziei buruz duela egun batzuk Comisiones Obreras sindikatuak (CCOO) egindako salaketa publikoa ezagutu ondoren, eta sindikatuak gabezia horiek dokumentu publikoak alderatuz egiaztatu ondoren (plantilla organikoak eta Mankomunitate, Toki Erakunde eta Nafarroako Gobernuaren arteko finantzaketa-hitzarmenak/Adendak), prozedura-berrikuspen bat egin behar da gutxienez ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dugu:

– Zer kontrol-protokolo edo -mekanismo erabiltzen du Nafarroako Gobernuak Gobernuaren eta toki-entitateen arteko finantzaketa-hitzarmenei dagokienez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako langileen finantzaketaren azken xedea bermatzeko?

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio politiko egiten du CCOOk egindako salaketaren arabera lanpostu bera duten langileek, gehienak emakumeak, ordainsari bera ez jasotzeari buruz lan egiten duten mankomunitatearen edo toki-entitatearen arabera?

– Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak kontrol-mekanismo berriren bat ezartzea?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-25/PES-00181. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan paziente euskaldunei ematen zaien logopedia-arretari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan paziente euskaldunei ematen zaien logopedia-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Aurreko legegintzaldian, 2022ko urriaren 26an, O-NOZen logopedia-arretari buruzko mozio bat onetsi zen Nafarroako Parlamentuan. Mozioak bi puntu zituen:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna derrigorrezkoa izan dadin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoan dauden logopeda lanpostuetako batean, gutxienez ere, euskaldunei osasun-laguntza hori eman ahal izango zaiela bermatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskararen eskakizuna duen

plaza bat sar dezan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko logopedia espezialitaterako Lan Eskaintza Publikoko hurrengo deialdian. Eta bermatu dezan beti egongo dela euskararen behar besteko prestakuntza duen pertsona bat logopeda plaza batean, unitate horretako langileen artean, plaza bere jabetzakoa izan edo aldi baterako kontratatuta egonda ere.

Horri buruz, parlamentari honek idatzizko galdera hauek egiten ditu:

2022ko urriaren 26an mozioa onetsi zenetik:

– Euskara nahitaezkoztat jo al da Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantilla organikoko lanposturen batean?

– Onartu edo egin al da logopeda-lanpostu bat lortzeko euskara nahitaezkoa den lan-eskaintza publikorik?

– Onartu edo egin al da logopeda-lanpostuetarako euskararen ezagutza baloratzen den lan-eskaintza publikorik?

– Kontratatu al da logopediako profesionalen bat, modu finkoan edo aldi baterako, behar besteko prestakuntza duena ziurtatzeko paziente horiei arreta euskaraz emanen zaiela?

– Zer ekimen abiarazi du Osasun Departamentuak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan artatzen diren paziente euskaldunei logopedia-arreta bermatzeko?

– Ba al dago logopediako profesionalik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan euskaldunei euskarazko arreta bermatzeko? Eta hala ez bada, zer epetan duzue arreta hori bermatzeko asmoa?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-25/PES-00182. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoko parte-hartze prozesuaren faseei buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoko parte-hartze prozesuaren faseei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoa 2025-2028 - Partaidetza prozesuaren faseak - Herritarren parte-hartzea web-orrian esaten da 2025eko martxoan onetsiko dela Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoa 2025-2028.

– Zergatik atzeratu da plan estrategikoaren onspena?

– Zein egunetarako dago aurreikusita plana amaitzea eta onestea?

– Plana taxutu behar duen enpresa esleipen-hartzailearekiko kontratuaren baldintzak aldatu al dira? Zergatik?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-25/PES-00183. Galdera, Betizu arrazako behiekiko istripu-kasuetako erantzukizunari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Betizu arrazako behiekiko istripu-kasuetako erantzukizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioaren eledun

den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Duela gutxi, Betizu arrazako abelburuak agertu dira Nafarroako Urdazubi herriaren inguruetan eta Baztango zenbait lekutan.

Horrek dakarren arrisku sanitario eta humanoa hainbat kasu eragiten ari da, zeinetan jendeak ez baitaki zer egin ez zer lege-estaldura dagoen. Orain dela zenbait aste, istripu bat gertatu zen Urdazubin betizu batekin, eta Ingurumen Departamentuak beste hainbeste akabatu zituen, kontrol-eta analisi-prozesu bat egiteko.

Hori dela-eta, galdera hau egiten dugu: betizuak tartean diren istripu edo ezbeharren kasuan, nor da erantzulea? Nork hartzen ditu bere gain eragin ditzaketan kalteak?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-25/PES-00184. Galdera, Bidean-ek langileak subrogatzeari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Bidean-ek langileak subrogatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Jakitera eman denez, Bidean-ek Baztan-Bida-soa eta SSG enpresetako 400 langile subrogatu-tu ditu. Bi enpresetako behin-behineko langileak sartuta al daude kopuru horretan?

Bidean-ek kontratatuko dituen 24 langile gehigarriei dagokienez, zer lanpostutan eta noiz hasiko dira lanean?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00185. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren alokairu-kontratuari buruzkoa

MARIO FABO CALERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mario Fabo Calero jaunak egindako galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren alokairu-kontratuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Mario Fabo Calero jaunak, Legebil-

tzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, idatziz erantzuteko honako galdera hauek eginen ditu:

11-25/PEI-00417 informazio-eskaerari erantzunez, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak honako hau erantzun zuen: "Gaur egun, Ondare Zerbitzua Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroaren instalazioetarako errentamendu-kontratu berria prestatzen ari da. Kontratu horrek 6 hilabeteko indarraldia izanen du hasiera batez, baina ezin da bidali, oraindik ez baitago behin betiko zirri-borririk".

Horregatik guztiagatik:

- Zer arrazoi dago 6 hilabeteko iraupena duen kontratu bat sinatzeko?

- Departamentuak Martzillako Behaketa- eta Harrera-zentroa ixteko eta beste leku batera eramateko asmoa al du?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Mario Fabo Calero

11-25/PES-00186. Galdera, Nafarroako Ubidera konektatutako Leringo Edateko Uren Araztegia Toki Inbertsioetarako Planeko obretan ez sar-tzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari- que jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidera konektatutako Leringo Edateko Uren Araztegia Toki Inbertsioetarako Planeko obretan ez sar-tzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebil- tzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu- takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adol- fo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapi- detu ditzan eta idatziz erantzun diezaien:

Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren 2019-2030 Plan Zuzentzaileak honako hau ezarri zuen behin betiko bertsioan Estellerriko hornidurari dagokionez:

"• Itoiz eta Nafarroako Ubidea lotzea, Lerín, Carcar, Andosilla eta San Adrián hornitzeko (eta ondoren adierazten den bezala, baita Erriberagoiena eskualdeko Azagra ere). Konexio hori 2024an hasiko litzateke egiten, eta 2027rako amaituko litzateke, esleitutako bolumena 2,20 hm³/urte izanik; horietatik, 1,61 hm³/urte Estellerriko herriei dagokie, eta 0,59 hm³/urte Erriberagoienako Azagrari. Honekin batera doan mapan gutxi gorabeherako trazadura bat jaso da, proiektuaren fasean sakonago aztertu beharko dena".

Inbertsioen artean, honako hau zegoen: Itoiz eta Nafarroako Ubidea eta EUTEa lotzea (12.000.000 euro), 2024-2027 aldian.

Maiatzaren 6an, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak Inbertsio Planean, Nafarroako altako ur-hornidurari buruzko atalean, 2026-2028 aldirako aurreikusitako 56 proiektuen berri eman zuen. Jurramendiko Mankomunitatearen egoitzan aurkeztu ziren proiektu horiek.

Hain zuzen ere, Jurramendi-Izarbeibar eremurako, honako hauek jasotzen dira aldi horretarako: tratamendu-estazio berria Itxakon, hirugarren putzua Mendazako hartunean, tratamendu-estazioa Argiñaon eta hornidura Irurre eta Leraten. Obra horien artean, ez da aipatzen Nafarroako Ubidea-

rekiko konexioa, aldi horretan Lerinen inguruan egitea aurreikusten zena.

Hori dela-eta, galdera hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

1. Nafarroako Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren 2019-2030 Plan Zuzentzailean jasotako aurreikuspenak aldatzea erabaki al du Nafarroako Gobernuak Estellerriari dagokionez?

2. Erantzuna baiezkoa baldin bada, zer prozeduraren bidez aldatu da plan zuzentzaile hori?

3. Zergatik ez dira sartu 2026-2028 Tokiko Inbertsioen Planean egin beharreko inbertsioen artean Mendazako putzuen gaineko presioa murrizte aldera Lerin inguruan Nafarroako Ubidearen sistemarekin konektatzeko aurreikusitako EUTEari buruzkoak?

4. Zergatik baztertu da Nafarroako Ubideko hornidura-inbertsio hori, eta zergatik eman zaie lehentasuna Plan Zuzentzailean Erriberako eremurako aurreikusitako guztiei, era berean Itoiz-Nafarroako Ubidea sistemarekin lotuko liratekeenei?

5. Noizko aurreikusten du Nafarroako Gobernuak Plan Zuzentzailean Lerin inguruan egitea proposatzen zen EUTEa egitea? Edo baztertu egin al du aukera hori, eta Mendazako putzuan hirugarren ponpaketa bat sartuta ordeztuko al da Nafarroako Ubidetik hornitzea aurreikusten zen ura?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

11-25/PES-00187. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/987 Ebazpenari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/987 Ebazpenari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarro-

ako Gobernuari eskatzen dio galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Nafarroako Arartekoaren Ebazpenean (Q24/987), Lurralde Kohesiorako Departamentuari gomendatzen zaio eremu euskaldunean jarritako bide-seinale informatiboetan errotulazioa bi hizkuntzetan egin dadila; eremu horretan jarritako bide-seinale informatiboetan "Frantzia" adierazpena erabil dadila "Franciakoaren" ondoan; eta iradokitzen dio, eremu euskaldunetan eta mistoetan bide-seinaleak jartzeari eta euskara erabiltzeko beharrari eta modu zehatzari dagokionez, alde zuretik kontsulta egin diezaiola Euskarabidea institutuari.

Zein dira (zein testu dute) eta non daude kokatuta Q24/987 ebazpena aipatzen diren seinaleak?

Zein izan dira, zehatz-mehatz, Q24/987 ebazpenaren gomendio eta iradokizunei jarraituz seinaleztapenean egin diren aldaketak?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00188. Galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/55 Ebazpenari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Arartekoaren Q24/55 Ebazpenari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Nafarroako Arartekoaren ebazpenean (Q24/55), Lurralde Kohesiorako Departamentuari gomendatzen zaio N-121 errepidean (Iruñea-Gipuzkoako muga), izen ofizial elebiduna duten biziguneen izendapenari dagokionez, jarritako bide-seinaleztapenean izendapen hori adieraztea; errepide horren eremu euskaldunean jarritako bide-seinaleztapenari dagokionez, errotulazioa ele bitan egitea; iradokitzen zaio errepide horren eremu mistoan jarritako bide-seinaleztapenari dagokionez, errotulazioa ele

bitan egin dadila; eta amaitzeko, gomendatzen zaio errepide horretan jarritako bide-seinaleztapenari dagokionez "Francia" izenarekin batera "Frantzia" erabiltzea.

Zein dira (zein testu dute) eta non daude kokatuta Q24/55 ebazpenena aipatzen diren seinaleak?

Zein izan dira, zehatz-mehatz, Q24/55 ebazpenaren gomendio eta iradokizunei jarraituz seinaleztapenean egin diren aldaketak?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-25/PES-00189. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren balizko desegiteari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren balizko desegiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Gobernuak zer egingen du Nafarroako Gazteriaren Kontseiluarekin, Kontuen Ganberaren azken txostenaren ondoren? Desegin egingen al du?

2. Deseginez gero, zer irtenbide planteatuko du indarrean dagoen Gazteriaren Foru Legearen bidez Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak esleitura zituen eginkizunak bete ahal izateko?

3. Izanen al du eraginik eskualdeko eta tokiko gazteria-kontseiluetan? Zeintzuk daude eratuta eta funtzionatzen gaur egun?

Iruñean, 2025eko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER202300062. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko

Izendapen-proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27ko erabakiaren bidez, deialdi bat onetsi zuen, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Deialdia argitaratu zen 2023ko abenduaren 14ko 258. Nafarroako Aldizkari Ofizialean (deialdiaren aldaketa, 2023ko abenduaren 21eko 263. NAOn argitaratua) eta 2023ko abenduaren 14ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean (deialdiaren aldaketa, 2023ko abenduaren 22ko 50. NPAOn argitaratua). Bada, deialdi horretako epaimahaiak, 2025eko maiatzaren 6an, deialdia gainditu duten bi izangaien aldeko izendapen-proposamena aurkeztu du.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuaren 5. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Izendapen-proposamena onestea, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko legelari izateko bi lanpostu huts, funtzionario-araubidekoak eta A mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiko epaimahaiak deialdia gainditu duten bi izangaien alde eginikoa. Honako hauek dira, guztizko puntuazioaren hurrenkeran:

Ignacio Ordoki Guarch jauna

Miguel Ángel Núñez Iriarte jauna

2. Ignacio Ordoki Guarch jaunari eta Miguel Ángel Núñez Iriarte jaunari eskatzea aurkez deza-tela Parlamentuaren Erregistro Orokorrean deialdiaren 8.3 oinarrian adierazitako dokumentazioa, 30 egun naturaleko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

3. Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, eta agintzea argitara dadila Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ACOP-00010. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Europaren Eguna dela-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

Lehena:

1. Konpromisoa berrestea Europar Batasunaren balioekin eta erakundeak bakearen, demokrazia- ren, aukera-berdintasunaren, gizarte- eta lurralde- kohesioaren eta garapen jasangarriaren sustape- nean duen eginkizunarekin.

2. Nazioarteko egonkortasun ekonomikorako eta herritarren ongizaterako mehatxu diren muga- zergen politika alde bakarreko eta protekzionistak arbuizatzea.

3. Nazioko eta Europako erakundeak premia- tzea merkataritza justu eta alde anitzekoa, arae- tan eta elkarrekiko errespetuan oinarritua, alde- zen jarrai dezaten.

4. Indar politiko demokratiko guztiei eskatzea Europar politikekiko eta nazioarteko lankidetzareki-

ko babesa indar dezaten eta konpromisoa har deza- ten Europako proiektua ahultzen duen populismo edo euroeszeptizismo molde oren aurkako borro- karekin.

5. Europaren Egunaren kariatara, Espainiak Europar Batasunari atxikitze-ko akta sinatu zuene- ko 40. urteurrena gogora ekartzea eta nabarmen- tzea mugari historiko horrek izan zuen garrantzia gure herrialdean eskubideetan, askatasunetan eta oparotasunean aurrera egiteko.

6. Maiatzean zehar, Europako sinboloen ikus- garritasuna sustatzea Parlamentuko eremu publi- koetan, europar balio eta batasunarekin dugun konpromisoaren adierazgarri.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ACOP-00011. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, LGTBI+fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko maiatzaren 12an egindako bilkuran, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak LGTBI+ pertsona guztien eskubide guztiak aldezen jarrai- tze-ko konpromisoa du.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak diskurtso eta praktika LGTBI+fobikoak arbuizatzen ditu.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak konkista- tutako lege eta eskubideetan aurreratzen jarrai- tze-ko konpromisoa hartzen du, gure gizarteak berdintasunean, aniztasunean eta askatasunean aurrera egiten jarrai dezan.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak herrita- rrei dei egiten die maiatzaren 17a dela-eta antola- turiko mobilizazioetan parte har dezaten.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Nafarro- ako udal guztiei dei egiten die bat egin dezaten Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatu- tako LGTBIfobiarik gabeko udalerrien sarearekin.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias